



8 HILABETEZ JASO GABE EGON DIREN MEDIKAZIOEN PRESKRIPZIO KRONIKOAK BEHIN-BEHINEAN ETETEA

2018ko abendua

Gaur egun, Presbiden 4 milioi tratamendu kroniko aktibo daude, gutxi gorabehera, eta horietako **308.000 inguruk (hau da, % 7,7k)** % 0ko atxikipena dute Presbiden, hau da, pazienteak ez du medikazioa jaso azken 8 hilabeteotan eta, beraz, ez da medikazio hori hartzen ari.

Egoera hori ikusita, eta Osakidetzaren doikuntza eta atxikipen farmakoterapeutikorako talde korporatiboak proposatuta, Presbiden prozesu automatiko bat jarriko da martxan, preskripzio horiek automatikoki uzteko **Behin-behinean Etenda (ST) farmazian jaso ez izanagatik**; hartara, Historia Farmakoterapeutikoa “araztea” erraztuko da, eta gehiago hurbilduko da pazientearen “benetako” tratamendura. Neurri honi esker, segurtasun-arazo posibleak ekidingo dira.

Hasieran hiru kasu hauetan bakarrik aplikatuko da neurri hau: garrantzi txikiko prozesuetarako medikamenduak (adib. sukarra, errinitisa), akutu gisa (adib. antiinfekziosoak) edo nahierako medikamendu gisa (adib. salbutamola, terbutalina) preskribatu behar ziren tratamenduak, eta farmazian sistematikoki jaso ez izanagatik preskripzioa etetea justifikatuta geratzen den kasuak (adib. benzodiazepinak).

Osakidetzako sare osoan sistematizatu eta orokortu baino lehen, prozesu automatiko hau emaitza onekin **pilotatu da** lehen mailako arretako 43 taldetan. Bada, ekainaren 15ean, 3.659 pazienteren **4.798 preskripzio utzi ziren Behin-behinean Etenda farmazian jaso ez izanagatik** (112 preskripzio kupo bakoitzeko, batez beste). Handik 3 hilabetera:

- *4.552 preskripzio daude amaituta (% 94,9)*
- *246 preskripzio aktibatu dira berriro (% 5,1)*
- *Preskripzio kroniko gisa erregistratuta zeuden 82 preskripzio pasa dira nahierako preskripzio egoerara (analgesikoak, AINE eta IBP, batik bat).*

Neurri hau **modu orokortuan aplikatuz, 180.000 preskripzio inguru geratuko dira Behin-behinean etenda farmazian jaso ez izanagatik** EAE osoan.

Jarraian, abenduaren 15etik aurrera aplikatuko den prozesu automatizatuaren xehetasunak jaso dira.

PRESKRIPZIO HAUEI APLIKATUKO ZAIE:

Azken 8 hilabetean behin ere jaso ez diren medikazioen preskripzio kronikoak (farmazietan ez dira banatu elektronikoki edo ez da errezetarik inprimatu). Horrenbestez, prozesu honetatik kanpo daude nahierako preskripzioak eta akutuak.






Errezeta bidez finantzaturako medikamentuei bakarrik aplikatuko zaie. Neurri hau hartuko da finantzatu gabeko medikamentuen kasuan farmazia-bulego askok ez dutelako erregistratzen medikamentuak elektronikoki eman dituztela (adib. ahotiko antisorgailuak, antiazidoak, libragarriak...), eta hortaz, balitekeelako % Oko atxikipena ez izatea egia.

Neurri hau aplikatuko zaien medikamentuen zerrenda Osakidetzaren intranetean ikus daiteke (Behin-behinean etetearen medikamentuen zerrenda 2018ko abendua).

Prozesu honetatik kanpo daude zentro soziosanitarioetan ingresatuta dauden pazienteen preskripzioak eta mutua sanitarioetakoak (Muface, Isfas, Mugeju), azken horiek medikazioa errezeta espezifikoaren bitartez jasotzen dutelako eta ez direlako erregistratuta geratzen errezeta elektronikoko sisteman.

EGOERA BERRIA SORTU DA PRESBIDERAKO (“behin-behinean etenda farmazian jaso ez izanagatik”)

Oraintsu arte, preskripzioek hiru egoera izan zitzaketen Presbiden:


-  Aktibo
-  Behin-behinean etenda
-  Amaitua

Presbiden egoera berri bat sortu da, Behin-behinean etenda:

 **“Preskripzioa eten egin da, ez delako farmazian jaso”.**

Egoera honetako preskripzioak behin-behineko etete arrunten ondoren eta amaitutakoen aurretik daude kokatuta.

Preskripzioaren xehetasunetan ikusten da egoera-aldaketaren arrazoia:



Egoera honetan, preskripzioa farmazia-bulegoan ezingo da eman.

PRESKIPZIOAK “AUTOMATIKOKI” AMAITZEA

“Farmazian jaso ez izanagatik behin-behinean etenda” egoeran 3 hilabetez egon ondoren medikuak preskripzioa ez badu aktibatatu, Preskripzioa amaituta geratuko da.

<input type="checkbox"/>	☺		29/08/2018	C	E	Valproato Sódico/ac. Valpróico (200/87mg)
<input type="checkbox"/>	✖		18/09/2018	C	E	Telmisartan 20 Mg 28 Comprimidos
<input type="checkbox"/>	✖		18/09/2018	C	E	Seretide Accuhaler 50/500mcg/inh 1 Inha
<input type="checkbox"/>	✖		12/09/2018	C	E	Sintrom 1mg 60 Comprimidos
<input type="checkbox"/>						Lorazepam 1mg 50 Comprimidos
<input type="checkbox"/>						Media Larga Comp Fuerte
<input type="checkbox"/>						Omeprazol 20mg 14 Capsulas

Prescripción finalizada : No recogida en farmacia. Se ha realizado la finalización automática de la prescripción.

Preskripzioaren xehetasunetan ikusten da egoera-aldaketaren arrazoia:

AA00X – Farmazian ez da jaso. Preskripzioa automatikoki amaitu da.

Tipo	Crónica	Inicio de tratamiento	17/08/2017	Revisión	01/05/2019	Campaña sanitaria	<input type="checkbox"/>	Prescrito en domicilio	<input type="checkbox"/>	Seguimiento	<input type="checkbox"/>
Estado	Prescripción finalizada	Motivo cambio de estado	AA00X. No recogida en farmacia. Se ha realizado la finalización aut...			Modificada	12/09/2018	Finalización	12/09/2018		
Posología	Datos Adicionales	Modificaciones	Crédito Impreso (Recetas)	Crédito Dispensado (eRezeta)	Comunicaciones(0)						
Dosis por toma	COMPRIMIDO	≈	MG								
Pauta: cada	-- Selecciona --										
Duración del envase en días	30	días	Envases máximos hasta la fecha de revisión	7							
											Instrucción
											<input checked="" type="checkbox"/> A la mis
											<input checked="" type="checkbox"/> Con e:

FARMAZIAN JASO EZ IZANAGATIK BEHIN-BEHINEAN ETENDA DAUDEN PRESKIPZIOEN KUDEAKETA

- Preskripzio hauek EZ dira agertzen egiteke dauden zereginak atalean, eta horregatik, litekeena da hortik hiru hilabetera automatikoki geratzea amaituta medikua horretaz konturatu ere egin gabe, non eta pazientea kontsultara ez doan medikazioarekin jarraitzeko eskatzera.

Etorkizunera begira, Presbiden tresna bat sortzea planteatzen da (egiteke dauden zereginak), osasun-langileek farmazian jaso ez direla-eta behin-behinean etendas dauden preskripzioen jarraipena egitea errazteko. Bada, prozesu automatizatu hau beste medikamendu-talde batzuetara ere zabaldu ahalko da (antidiabetikoak, antihipertentsiboak, estatinak, antikoagulatzaileak...).

- Preskripzio hauek ez dira azalduko luzapenean preskripzioen blokean.

Preskripzioa aktibatatu nahi izanez gero, kasuan kasuko preskripzioan sartu beharko da eta berrikuspen-data berri bat jarri.